

612 euro



### Jon Arretxe

Bilduma: Uzta gorria, 36

Formatua: 135 x 205 mm

Orrialdeak: 256

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2025-05-05

ISBN paperezko edizioa: 978-84-1093-047-6

Materia: Helduentzako literatura

### Salmenta prezioa

**22,50 €**



## Desesperantza - Bizirautea - Iruzurra

Bueltan da Touré, San Frantzisko auzoko igarle-ikertzaile berezia, bizilagun afrikarrentzat agurgarria, emakume zurientzat desiragarria eta polizientzat mespretxagarria. Bolada txar batetik pasatzen ari den momentuan ustezko anaia baten bisita jasoko du bere patera-pisuan, lekua egingo dio afrikar abegiaren izenean eta, erabaki horren erruz, arazo larriak sortuko zaizkio, lapurreta, droga-trafiko eta hilketa kasuetan belarrietaraino nahastuko dutenak.

*19 kamera* arrakastatsuen ondoren dator *612 euro*. Toureren sagako bigarren nobela hau ere Euskal Herriko ghettoik handienean kokatuta dago, Bilboko San Frantziskon. 612 euro instituzioek behartsuenei hilerio ematen dieten kopurua da, sanfrantziskotar askoren baliabide bakarra bizirik irauteko.

Gordintasuna eta umorea konbinatuz, Jon Arretxek erritmo biziko eleberria eraiki du, irakurlea lehen orrialdetik harrapatu eta amaiera arte oharkabean daramana.

Itzulerarik gabeko bidaia Europako alde ilunenera, non 612 euro diren azken itxaropena

Galtzeko ezer ez duzunean, edozein erabakik bizitza arriskuan jar diezazuke.  
Noraino iritsiko zinateke bizirik irauteagatik?

## Jon Arretxe



Jon Arretxe (Basauri, 1963)

Euskal Filologian doktorea da, Heziketa Fisikoan lizentziatua, eta Piano eta Kantuko ikasketak ere baditu. Egile polifazetiko eta arrakastatsu honek aspalditik du ogibide idaztea, eta opera kantaria ere bada. Sortu dituen hogeita hamataka liburuen artean, bidaia-narrazioak (*7 Kolore*, *Tubabu*, *Oroituz*, *Griot...*) eta nobela beltzak dira nagusi. Azken genero honi dagozkio *Xahmaran*, *Tangerko Ametsak*, *Arrutiren banda* eta Toure ikertzailearen sailekoak: *19 Kamera*, *612 Euro*, *Hutsaren itzalak*, *Estolda jolasak*, *Sator lokatzak*, *Ez erran deus*, *Mesfidatu hitzez*, *Dortokaren begirada*, *Lyrica garaia* eta *Musker amarruak*.

<http://www.jonarretxe.net>